

FATIMA'KO AMA BIRJIŃA



TA UMEAK

FATIMA'KO AMA BIRJINA TA UMEAK

S. Anton'go Katekesia
Euskal - argitalpenak

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

- 1 - Phedro'ren Alegiak I**
- 2 - Martial'en Ziri-Bertsoak**
- 3 - Phedro'ren Alegiak II**
- 4 - Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak**

Fatima'ko gertaerak zeatz-zabalki ezagutzeko, ba-dozu beste idazti bat bizkaieraz: Aita Goiria Karmeldarraren FATIMAKO AMA BIRJIÑA, 1956 -garren urtean argitaratua. Jakingarri eder asko emoten dauz, euskera erritar-eder-aberatsez

Arrazola'ko
Olaetxea'tar Belen'i:
Amboto-ondoan etxe ederra.
Etxean neska argia.
Eguzkia alai: ernetzen doa
Kristau-euskaldun azia.

Núm. de Registro: 14-66

Depósito Legal: BI-1356-1966

Gráficas Ellacurfa-Bilbao

ANDRA MARIA UMEEN BILLA

Iñoiz zure aita-amak, guda dala-ta, berbetan ikusi dozuz? Larri dagoz zer jazo ete leiteken munduan, beste gerra bat ba'lego. Bakearen alde otoitz egiten dabe.

Gura zeunke zuk mundu au alai ta zoriontsuago egiten lagundu? Andra Maria'k, gure zeruko Amak, esango dautzu zelan.

Denpora asko ez dala etorri da zerutik ume txiki-txikiak ikusten. Andra Maria, Lourdes'en, Bernardatxori agertu yakon. Andra Maria'k domiña miraritsua emon eutson neskato zoragarri bateri, Paris'en. Ta Mexico'n umetxo indio bateri agertu yakon. Guadalupe'ko Andra Maria zan.

Liburutxo onetan Ama Birjiña iru umeri Fatima'n, Portugal'en, zelan agertu yakon kontau bear dautzut. Andra Maria'k iru ume arei berba egin eutsenean, munduko ume guztiak ebazan gogoan (1).

(1) 1917-garren urtean.

LENENGO AINGERU BAT ETORRI ZAN

Orain denpora gitxi dala, Fatima'ko iru ume-txo, Luzia, Prantzisko ta Jazinta, ardiak zaindu-ten egozan.

Aldi aretan millaka gizon eta emakume ilten ziran ikaragarritzko gerra baten. Gizon askok ez eben Jaungoikoagan siñistuten; beste askok Jaungoikoa gorroto eben, Aren kontra biraoak esanaz.

Baiña Luzia'k, Prantzisko'k eta Jazinta'k, Jaungoikoa maite-maite eben. Egun baten, larrean egozala, gora begiratu ta aingeru eder-eder bat ikusi eben. «Bake-Aingerua nozue», esan eutsen. Orduan esan eutsen Jaungoikoa oso tristerik egoala, gizonak alkarren aurka gerran ebiltzalako. «Zuen Aberriaren, Portugal'en Aingeru Yagolea naz».

Beste baten, *Aingerua barrero agertu yakon*. Oraingoan, *Altarako Jesus ekarrela*. Iru umeak belauniko jarri ta Aingeruak gure Jauna emon eutsen, abadeak mezatan egiten daben lez. Gero gertatuko zirean gauza arrigarriak azaldu eutsezan. Umeak errezau egiten eben ta guztiz onak ziran.

EGUN NEGARGARRIAK

Gerra-egun areik bai negargarriak guztien tzat! Naziño andiak bata bestearen aurka asi ziran, iltzeraiño berrukan. Jente asko il zan. Ume asko be asko gosez eta bonbardeoetan il ziran. Beste asko umezurtz gelditu. Jente arroak

esan eutsoen gure Aita Jaungoikoari: «Ez zaitugu bear; indartsuak gara; dana dakigu». Errusoak, len Jaungoikoa ta Ama Birjiña maitatu ebezanak, euren Erregea il eben, eleizak itxi ebezan eta euren agintariai entzun eutsien esaten: «Ez dago Jaungoikorik».

Mundu gaixoa! Nok salbauko?

Beñola, Jesus'ek, entzuten egokion gizataldeari esan eutson: «Umeak legez egiten ez ba'zarie, ez dozue Zeruko Erreiñuan sartzerik izango». Maite-maite ebazan Jesus'ek umeak, baita Andra Maria'k Jesus'en Amak be. Orregaitik auxe eskatu eutson Jesus'ek bere Amari: mundu guztiko umeai esateko pekatariak salbau ta mundu gaixoa sendatu egiela.

IRU UME ZORIONEKO

Luzia, Prantzisko ta Jazinta pobreak ziran. Ez euken diru askorik. Txikiak izan arren, bear asko egiten eben: gurasoen arditxoak zaindu, Fatima'ko zelaietan. Ez ekien leiduten, ezta idazten be. Alan ta guzti be, Jaungoikoak laguntzaille artu ebazan mundua salbatzeko.

Egun baten, ardiak zainduten egozala, Andra Maria'ren ikustaldia izan eben. Andia da, gero! Jaungoikoak zuok lako umeai mundua salbatzeko laguntza eskatu!



Aingerua barrero agertu yaken, Altarako Jesus eharrela.

AMA BIRJIÑAK UMEAK BISITATZEN DAUZ

Jaungoikoaren Ama, eder-ederra azaldu zan, zerutik umeengana jatsi zanean. Lenengotan eurak ez eben ezagutu. Ederra baiño ederragoa zala ikusi, ori bai.

Ba-ekian Andra Maria'k umeak lenengotan bildurtuko zirala. Baiña poztu ondoan, eurok egi-tea gura eban gauzak eskatu eutsezan. «Errosarioa errezaue egizue, esan eutsen, munduarentzat bakea lortuteko ta guda amaitu daiten». Iru umeak Aren esana zintzo-zintzo bete ta egunean -egunean errosarioa esaten eben.

Andra Maria barriro etorri yaken. Oraingoan, irakurten ikasteko eskatu eutsen. Ta umeak Aren esana egin eben.

Irugarren ez etorri yaken. Bisita-aldi onetan inpernua erakutsi eutsen. Axe umien bildurra! Berak, orduan, atsekabez beterik esan eutsen: «Begitu inpernua; ara doaz gizon gaiztoen ari-mak. Eurok salbatzeko, Jaungoikoak neure Biotz Garbiarenganako deboziñoa sartu gura dau munduan. Gizonak nik diñotsedana egiten ba'dabe, salbauko dira ta munduan bakea izango da. Gerra amaitzeko dago. Baiña gizonak Jaungoikoa irainduteari itxiten ez ba-dautsoe, beste txarrago bat asiko da.

Umeak min andia artu eben Ama Birjiña onelan ikusiaz, eta guztietan Berari atsegin emoten aleginduten ziran.

Pekatarientzat parkamena lortuteko, sakrifizio asko eskeintzen eutsoezan Andra Maria'ri. Ez eben urik edaten, egarri ziranean; lur arritsuan belauniko jartzen ziran eta beste penitentzi asko be egiten ebezan.

Egi-egitan umeak mundua salbau legikee.

Andra Maria'k baietz, salbau al ebela esan eutsen. Baita zer egin bear eben be.

Entzun. Lenengo Andra Maria'k gertatu bear zana iragarri eutsen: gaba, misteriozko argi bategen argitua ikusten dozuenean, jakizue Jaungoikoak mundua bere gaiztakeriakaitik gerraz gosez eta jazarpenez zigortuko daualakoaren ezau-garria dala. Andra Maria'k iru umetxo arei esan eutsen eurak guzti au galerazo legikeela. «Errusia neure Biotz Garbiari eskiñi dakiola eskatuten nator». Gure Ama maitearen guraria, Errusiak Bera barriro maitatu ta Jaungoikoa zerbitzea zan. Orduan esan eutsen umeai kristiñauak illa bakoitzeko lenengo zapatuetan Jauna artzea gura ebala. «Nire eskariak adituten ba' dabez, Errusia oneratuko da ta pakea etorriko» Ta kristiñauak, ori egiten ez ba'eben, Errusiak munduaren zati andi bat irabazi ta gizon asko martirizatuak izango zirala. Azkenean nire Biotz Garbia nausituko da, esan eutsen Andra Maria'k umeai.

Iru umeak lasterka biurtu ziran gauza arri-garri onein barri emoten. Baiña jenteak siñistu ez. Zozokeriak! esan eban erriko alkateak. Zozokeriak! Ipuin onegaz jarraitzen ba'dozue, kartzelan sartuko zaituegu ta laba baten erreko, esan eutsen poliziak. Euren gurasoak be ez eutsen siñistuten. Ta abadeak eurak be, umeak egia esaten ebenik ziur jakin ez.

Ori zala-ta *umeak kartzelan sartu ta antxe egon ziran luzaro, min ta atsekabez*. Eurak ostera, otoitz eta otoitz, Jaungoikoaren Amari laguntzeko eskatu eutsen. Baita Berak ondo ja-gon be!

JENTEA SIÑISTUTEN ASTEN DA

Laster gaiztoai ta siñisbakoai eurai be min emon eutsen ain ume onak kartzelan sartuta euki-teak eta askatu egin ebezan.

Jente zintzoa umeai siñistuten asi zan. Asi ziran danak errosarioa esaten. Askok euren pekatuakaitik eta beste gizon gaiztoenakaitik penitentzia egin eben.

Umeak bisitatzen sarritan etorri zan Andra Maria. Batzuetan, Errosario'ko Erregiña lez edo Doloretako Ama lez eta beste batzuetan Eskapulario'ko Erregiña lez agertu zan.


Beti berbera eskatuten eban: gizonak agurtza errezau ta pekatarien alde otoitz eta penitentzia egiezala.

Ondoko egun baten umeak, Ama Birjiña, San Jose ta Jesus Aurtxoagaz, ikusi eben. Gizon asko umeakaz Fatima'ko kobara joan ziran arren, iru umeak bakarrik ikusi ebezan Andra Maria, San Jose ta Jesus Aurtxoak. Andra Maria'k gura ebana, iru umeen eginbearra zan. Ta umeoi siñistuta, euren esana beteko eben beste gizon batzuen be bai.

ERRUSIA GAIXOA! MUNDU GAIXOA!

Antxiña Errusiak guztiz maite eban Ama Birjiña. Edonun ageri zan Andra Maria'ren irudia. Konbentu ta eleiza askok bere izena eben. Errusia'n neskato askok Mari eben izena, Ama Birjiñak legez. Egun baten, baiña, gizon gaiztoak Jaungoikoa Errusia'tik baztertu eben. Andra Maria'ren irudiak apurtu ta erre egin ebezan. Ta esan eutsoen jenteari: «Erljioa? Orixe tentelkeri utsa! Ez dago Jaungoikorik». Ta iñor arein esanetara makartuten ez ba'zan, oiñazez erabilli ondoren giltzaperara.

Andra Maria'ren Biotza itun-tristerik-egoan. Orrexegaitik eskatu eutsen iru umei Errusia sal batzen laguntzeko. Errusia nere Biotz Garbiari eskeñi bear yako, esan eban. Jauna artu dagiela illeko lenengo zapatuetan. Errosarioa errezau ta euren pekatuakaz damutu daitezela.



Umeak kartzelan sartu ta antxe egon ziran luzaro, min ta atsekabez.

Bai gauza ederra, umeak Errusia ta mundua salbauko ba-lebez!

UMEAK ERRUSIA TA MUNDUA SALBAU DAIKEEZ

Ba-dakie Jaungoikoak eta Andra Maria'k mundua ez dala salbatzen gudaritalde andiakaz. Ezta diruagaz be. Jaungoikoa ezagutu ta bere Ama maite ez daben gizonak ez dira gauza guri laguntzeko.

Mundua salbatzeko onak bakarrik balio dabe. Otoitz egin bear da. Jaungoikoa maitatu bear da. Beragan siñistu bear da. Garbia izan bear da, Ama Birjiñaren antzera. Jaungoikoari, Eleizari ta Aita Santuari men egin bear yake.

Eta umeak gauza guztiok egin daikeez, mundua salbau daiten. Andra Maria'k, guzti au egiteko, auxe eskatzen dautse umeai: Lan onetarako beste batzuk be erakarri dagiezala.

EGUZKIA DANTZARI

Zure aitak bonba atomikaz iñoiz berbarik egin dautzu? Berebiziko argi-eztandaz lertu zan. Amaika gizon ta emakume il ebazan! Etxeak eta inguruan egoan guztia birrindu ebazan. Bonba atomika jausi baiño askozaz lenago mirari andi bat gertatu zan lurrean.

Ama Birjiñak iru umeai mirari a agindu eutsen: mundua arrituta itxiko eban miraria, gero.

Oneik onelan, egun baten, iru umeak eta mi-llaka lagun zerurantz begira egozala, bat-batean, eguzkia dantzan asi zan. Gurpil andi baten modura zeruan bira-biraka ibilli zan. Bere argi-izpi zoragarriak amatau ta ikusten egoan jentea bil-durrez eta ikaraz dar-dar. Eguzkia, beingoan, lu-rrerontz abiau zan. Jaungoikoak pekatarien ga-ñera bonba izugarri bat jaurtiki izan ba'leu legez. Jentea asi zan deadar baten: «Il bear gaitu gure pekatuakaitik». Ta Jaungoikoari, arren ta arren, salbatzeko eskatu eutsoen. Onetan, eguzkia geld-i. Ez eban gizonik il, Jaungoikoaren bonbak ez eba-zan gizonak ondatu. Andra Maria'k eta bere Se-meak eutsi eutsoen eta mundua jagon eben.

ANDRA MARIA'REN ESKARIA

Gogoratu dagigun Andra Maria'k iru umeai Fatima'n eskatu eutsena. Errosarioa egunean-egunean esateko eskatu eutsen. Sarritan Jaunartzeko ta, batez be, illa bakoitzeko lenengo zapatuetan. Katoliko-Munduari Errusia bere Biotz Garbiari eskeiñi egiola esateko eskatu eutsen umeai. Euren pekatuakaz eta gizon guztienakaz damututeko. Itxi egiezala atsegin yakezan gauza batzuk pekatarien alde apurtxo bat sufrietako. Jesus bere Semea maite-maite izateko ta bere Biotz txit Garbiari euren buruak eskeintzeko eskatu eutsen.

Gauzok beti egitea gatxa ba'da be, ez dira gau-za andiak. Edozein ume onak egin leikez!

ANDRA MARIA'REN AGINDUA

Iru zer miresgarri agindu eutsezan Andra Ma-ria'k umeai, gizonak eurok esana egitekotan.

Errusia Jaungoikoagana biurtuko zala. Ez zala geiago guda ikaragarririk izango. Ta pe-katari asko ta asko salbau ta ez zirala imper-nura joango. Asko zeruratuko zirala. Gizonak alako gauzak egiten ez ba'bezan, Errusia'k Jaungoikoaren aurka burrukan jarraituko eba-la ta munduan guduak eta negarra ugari izango zirala.

Umeak, alegiñak egin bear dozuez Andra Maria'ri atsegin emoten eta gizadia zorioneko egiten.

FATIMA'KO UMEAK OBEDITZEN

Luzia, Prantzisko ta Jazinta gaztetxoak ziran. Alan ta guzti be, Ama Birjiñak agindutakoa zearo bete eben. Otoitz egiten eben eta mundu guztiko pekatuakaitik Jaunari parkamena eska-tu. Errosarioa esan eta gure Jauna komuniñoan artzen eben. Orrexegaitik jente askok arei entzun ta siñistu eutsen. Gure Ama Doneak Fatima'n Berari eleiza bat jasoteko eskatu eban-da, asi ziran eleizagintzan.

Ordurako Prantzisko tan Jazinta Zeruko Aber-
rira deituak izan ziran. Poz-pezik il ziran, ba-
ekielako zeruan, ainbat bidar ikustera etorri ya-
ken Andra eder-ederra, arpegiz arpegi ikusiko
ebela. Jazinta'ri il baiño lentxoago Andra Maria
gure Ama agertu yakon. Orduan Prantzisko ta
Jazinta il ziran. Luzia bakarrik gelditu zan Fa-
tima'n jazorikoak munduan zabaltzeko.

MUNDUA ENTZUTEN

Gizon gaiztoak ez eben gura Andra Maria'k
iru umeai esandako gauza arrigarriak munduan
zabaltzea. Gaiztoak barre egin eutsen iru umeen
esanai: guzurretan ari zirala ez eben asmau, ba!
Esaterako, eguzki dantzariaren miraria ez zala
sekulan gertatu. Errusia Jaungoikoaganatzerik
gura ez areik! Gaiztoak alakoak, pekatu egin gura
eben naiz ta geiago gerrarik opa ez. Gizon onak,
barriz, umeai aditu ta Ama Birjiñak eskaturi-
koa gogotik bete eben. Millaka gizonak errosarioa
esan eben egunero. Millaka gizonak gure Jauna
artu eben illa bakoitzeko lenengo zapatuetan.

Olantxe, iru umeak berebiziko lan ederra
egin eben.

IRUDIA TA ELEIZA

Mundu zabalean asi zan jentea Andra Maria'k
eskatutakoa egiten. Bere irudiak egin ebezan,
iru umeai agertu yakenekoa langoak. Fatima'n
eleiza andi bat jaso eben, Berari eskeiñita. Ur

tean-urtean, mundu guztitik giza-talde andiak
doaz Andra Maria'k iru ume arei berba egin eu-
tsen lekua ikustera.

Ez al da benetan arrigarria iru ume areik
egiña? Bai zuur jokatu ebalta Andra Maria'k mun-
dua salbatzeko umeai laguntza eskatuaz!

LUZIA, JESUS'EN LUZIA AIZTA BIURTUTA

Asko maite ebazan Luzia'k bere etxetxo ta
bere sendia. Alan be, askozaz geiago Jaungoi-
koa ta Andra Maria gure Ama. Ta Andra Ma-
ria'k esana aztu gura ez Luzia'k. Berak agindu-
takoa egiteko bizitza guztia emon gura eban. Orre-
gaitik Fatima'tik alde egin eban monja sartzeko.

Luzia oraindik bizi da. Orain Jesus'en Luzia
aizta deritxo ta Karmeldar monja-etxe baten dago.
Egun osoan pekatarien alde erreguka diardu.
Egun osoan besteen pekatuakaitik penitentzia
egiten. Andra Maria'ri eskatu ta eskatu Errusia'ri
parkatu ta katoliku egin dagian. Geiago gerrarik
izan ez daiten, otoitzez. Ta mundu guztiko umeai
auxe eskatzen dautse: Gure zeruko Amak eskatua
egiteko: mundu au zorionsu, alai ta santu egiten
Berari laguntzeko.

FATIMA'KO OTOITZAK

Oindiño txikerra ba'zara be, ez izan ardura-
rik. Iru umetxoak Fatima'n errezau ebezan
otoitz ederrak ikasi zeinkez. Ama Birjiñak ba-

tzuk irakatsi eutsezan, Bake-Aingeruak beste batzuk.

Nai dozu Luzia'k, Prantzisko'k eta Jazinta'k lez otoitz oneik ikasi? Bake-Aingeruak onako au irakatsi eutsen:

«Ene Jaungoikoa, Zugan siñisten dot; adora-tzen zaitut; Zugan itxaroten dot; maite zaitut. Zugan siñistu ta itxaroten ez dabenen eta maite ez zaituenen alde parkeske natorkizu».

Umeak errosarioa esaten ari zirala, Andra Maria'k ezkutuki bakoitzaren ondoan (Aita gu-rea ta amar Agur Maria ondoan) Berak irakatsi-riko otoitz au esateko agindu eutsen: «Jesus parkatu eiguzuz gure pekatuak, salbau gagizuz inpernuko sutatik eta eroan egizuz zerura arima guziak, batez be, zure Errukiaren premiña andia-goan dagozanak».

Ederrak baiño ederragoak dozuz otoitz oneik eta ikasteko ta esateko errezak.

Zeuk be esango dituzu, ezta?

Buró de Información y Propaganda - Habana

Liburutxo onen egillea: Dr. Raul A. Arango

Euskeratzaillea: Etxebarria'tar Juan Anjel

Irudi-egillea: Carmen Crespo